



EBAZPENA, 2026KO EKAINA 26KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITA LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEEI ADINAGATIK ORDUAK MURRIZTEKO DEIALDIA, BETI IREKITA EGONGO DENA.

Hezkuntza Saileko lan-kontratadun irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera (EHAA, 2025eko azaroaren 6koa), 68. artikulua aplikatuko da, eta adinaren arabera eskola-orduak murrizteko deialdia egingo da.

Horrenbestez, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA. – Helburua

Ebazpen honen xedea da adinagatiko ordu-murrizketak eskatzeko prozedura ezartzea, bertan eguneko eskola-orduak murrizteko modalitaterako eta murrizketa urte anitzean metatzeko modalitaterako ezarritako baldintzetan.

BIGARRENA.- . Aplikazio-eremua.

1.-Deialdi hau honako langile hauei aplikatuko zaie:

- Euskadiko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan lan egiten duten lan-legepeko Hezkuntza Laguntzako Espezialistak, Fisioterapeutak, Okupazio Terapeutak eta Zeinu Hizkuntzako Interpretak, 59 urte dituztenak (60 urte bete gabe dituztenak).
- Eguneroko murrizketa hartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan lan egiten duten eta 60 urte baino gehiago dituzten lan-legepeko Laguntzako Espezialistak, Fisioterapeutak, Okupazio Terapeutak eta

RESOLUCIÓN DEL 26 DE JUNIO DE 2026 DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN POR LA QUE SE ESTABLECE LA CONVOCATORIA, PERMANENTEMENTE ABIERTA, RELATIVA A LA REDUCCIÓN DE HORAS POR RAZÓN DE EDAD PARA EL PERSONAL LABORAL EDUCATIVO.

De acuerdo con lo establecido Convenio colectivo del personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación (BOPV 06-11-2025), se procede a la aplicación del artículo 68 y a establecer la convocatoria de reducción de horas lectivas por edad.

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación

RESUELVO:

PRIMERO. - Objeto

La presente resolución tiene por objeto establecer el procedimiento de solicitud de reducciones de horas por razón de edad en los términos establecidos en la misma para la modalidad de reducción de horas lectivas diarias y en la modalidad acumulada.

SEGUNDO. – Ámbito de aplicación.

1.-La presente convocatoria será de aplicación al siguiente personal:

- Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Terapeutas Ocupacionales e Intérpretes de Lengua de Signos que trabajan en centros docentes públicos no universitarios del País Vasco que tengan 59 años (60 años no cumplidos).
- Especialistas de Apoyo Laboral, Fisioterapeutas, Terapeutas Ocupacionales e Intérprete de Lengua de Signos mayores de 60 años que presten servicios en centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco para



Zeinu Hizkuntzako Interpreteta izatea eta urte anitzetan metatzeko murrizketa hartu ahal izateko, 60 urte baino gehiago dituen lanlegepeko hezitzailea izatea (transkriptoreak eta gizarte langileak barne), betiere errelebo-kontratuaren bidez erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen ez baditu.

disfrutar de la reducción diaria y para acogerse a la reducción acumulada plurianual ser personal laboral educativo mayor de 60 años (incluidas las categorías de transcriptor y de ltrabajador social), siempre que no reúna los requisitos para acceder a la jubilación parcial mediante contrato de relevo.

2. – Murrizketa-modalitateen xedea eta aplikazio-irizpideak.

2.– Objeto y criterios de aplicación de las diferentes modalidades reducción.

2.1.- 59 urterekin irakastorduak murriztea

2.1.- Reducción de horas lectivas a los 59 años

Lan kontratadun hezitzaile finkoek, mugagabe ez finkoek, lanpostu hutsetako bitarteko edo ordezkapen kontratu bat dutenek (Hezkuntza Laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu hizkuntzako interpretea eta okupazio terapeutak) 59 urte badituzte (60 urte bete gabe), asteko zuzeneko arretako bi ordu murrizteko aukera izango dute.

El personal laboral educativo fijo, indefinido no fijo, con contrato de interinidad en vacante o de sustitución (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérprete de Lengua de Signos y Terapeutas Ocupacionales), que tenga 59 años (sin cumplir 60 años), tendrá derecho a una reducción de dos horas semanales de atención directa.

2.2.- 60 urterekin orduak murriztea

2.2.- Reducciones de horas lectivas a partir de 60 años:

2.2.1.- Eguneko murrizketa

2.2.1.- Reducción diaria

Hezkuntza-langile lan-kontratadun finkoei, mugagabe ez-finkoei edo lanpostu hutsetan dauden bitarteko langileei (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzako interpreteak eta terapeuta okupazionalak), 60 urte edo gehiago badituzte, heren bat murriztuko zaizkie zuzeneko arretako gehieneko orduak. Ordezkapen kontratua dutenek eta eguneroko murrizketa eskatu nahi dutenek abuztuaren 31ra arteko indarraldia duen kontratua izan beharko dute.

Al personal laboral educativo fijo, indefinido no fijo o personal interino en vacante (especialistas de apoyo educativo, fisioterapeutas, intérpretes de lengua de signos y terapeutas ocupacionales), que tenga 60 años o más, se les reducirá en un tercio las horas máximas de atención directa. En el caso del personal sustituto, si pueden justificar la vigencia del contrato hasta el 31 de agosto, podrán solicitar esta reducción diaria.

Hezkuntza-laguntzako espezialisten kasuan, zuzeneko arretako 25 orduetara iristen ez direnen eskaerak ere onartuko dira, baina heren baten murrizketa 25 orduko gehieneko zuzeneko arretaren gainean kalkulatu da.

En el caso del personal Especialista de Apoyo Educativo se admitirán las solicitudes de quienes no alcancen las 25 horas de atención directa, si bien la reducción de un tercio se calculará sobre la atención directa máxima de 25 horas.

Zuzeneko arretako orduen murrizketa benetan baliatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da murrizketa ordezkatua izan dadin. Beraz, murrizketaren ordezkapena betetzen den egunetik aurrera hasiko da murrizketa.

Para disfrutar de forma efectiva de la reducción de las horas de atención directa será imprescindible que la reducción sea sustituida. Por tanto, la reducción comenzará a partir del día en que se cumpla la sustitución.

2.2.2.- Urte anitzeko murrizketa metatua

a) Heren bateko murrizketaren baliokidea den murrizketa aldia metatuko dute.

Urte bakoitzean metatutako aldirako sortu ahal izango den gehieneko aldia 4 hilabetekoa izango da.

Kalkulua hiru hileroka egingo da, eta metatutako aldia hilabete batekoa izango da hiruhileko bakoitzeko; ez dira kontuan hartuko hiru hilabete baino gutxiagokoaldiak. Kalkulua egiteko, urteko 12 hilabeteak hartuko dira kontuan, abuztua barne.

b) Gehienez ere hemezortzi hilabete metatu ahal izango dira 5 urteko aldi batean edo erretiro-datara arte, abuztua barne.

c) Metatutako aldia etenik gabe hartu beharko da, erretiro osoa, borondatezkoa edo nahitaezkoa hartu aurreko unean.

d) Murrizketa metatua baliatu aurreko urtean, partzialki ordaindutako baimena hartu ahal izango da. Hala ere, aldi horrek ez du aldi metaturik sortuko, ez baita zerbitzu eraginkorrik ematen.

e) Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, aurkeztutako azken eskabidearen data hartuko da eskaera-datatzat.

f) Pilatutako aldia bateraezina izango da ordaindutako beste jarduera bat egitearekin.

g) Ezingo dute modalitate hau baliatu txanda-kontrata izateko baldintzak betetzen dituzten edo beteko dituzten pertsonak. Salbuespen gisa, eta Administrazioak txanda-kontrata berrabiarazi arte, urte anitzeko murrizketa metatua eskatu ahal izango dute txanda-kontrata eskatu ahal izateko baldintzak betetzen dituztenek ere. Erretiroa hartu aurretik txanda-kontrata eskatzeko aukera berrabiarazten bada,

2.2.2.- Reducción acumulada plurianual

a) Acumularán una reducción equivalente a la reducción de un tercio.

El periodo máximo que se podrá generar para el periodo acumulado de cada año será de 4 meses.

El cálculo se realizará por trimestres y el periodo acumulado será de un mes por trimestre; no se tendrán en cuenta las fracciones inferiores al trimestre. Para el cálculo se tendrán en cuenta los 12 meses del año, incluido el mes de agosto.

b) Se podrá acumular un máximo de dieciocho meses en un periodo de 5 años o hasta la fecha de jubilación, incluido el mes de agosto.

c) El periodo acumulado deberá disfrutarse de forma ininterrumpida en el momento inmediatamente anterior a la fecha de jubilación total, voluntaria o forzosa.

d) Durante el año anterior al disfrute de la reducción acumulada se podrá disfrutar de un permiso parcialmente retribuido. No obstante, este periodo no generará periodos acumulados, ya que no se prestan servicios efectivos.

e) En el supuesto de presentación de varias solicitudes, se tomará como fecha de solicitud la de la última presentada.

f) El periodo acumulado será incompatible con el desarrollo de otra actividad remunerada.

g) No podrá acogerse a esta modalidad las personas que cumplan o vayan a cumplir los requisitos para acceder al contrato relevo. Excepcionalmente, y hasta la reanudación por parte de la Administración del contrato de relevo, también podrán solicitar la reducción acumulada plurianual quienes reúnan los requisitos para poder solicitar el contrato de relevo. En el caso de que se ejercitara la opción de solicitar el contrato de

txanda-kontratua baliatzeko baldintzak betetzen dituzten langileek txanda-kontratua eskatu beharko dute, eta une horretara arte urte anitzetan metatutako murrizketa baliatu ahal izango dute erretiro osoa hartu aurreko epean. Administrazioan txanda-kontratuak berriro formalizatzen direnean, txanda-kontratua lortzeko baldintzak betetzen dituzten edo beteko dituzten langileek ezingo dute modalitate hori baliatu.

Nolanahi ere, urte anitzeko modalitate hori eskatzen duten langileek segidako 5 urte edo etendako 10 urte eman beharko dituzte erretiroa hartzeko unean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan.

Emandako zerbitzuak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira senidea zaintzeko eta aldi baterako etetekoaldiak, baldin eta justifikatzen badira.

h) Ordu-murrizketa metatua duten langileen administrazio-egoera zerbitzu aktibokoa izango da, eta ez du oporrik sortuko. Horregatik, murrizketa hori baliatzeko baldintzei eragiten dieten inguruabar guztiak jakinarazi beharko dira.

2.3.- Prozedura arautzea

a) Urte anitzean metatutako aldia gozaten hasteko, hezitzaileek aldi berean aurkeztu beharko dituzte hura baliatzeko eskaera, behin betiko erretiroaren data jasotzen duen Gizarte Segurantzaren zinpeko aitortpena edo simulazioa. Murriztutako epea gozaten hasteko eskaera hori metatutako aldia hasi baino gutxienez 2 hilabete lehenago aurkeztu beharko da.

Metatutako aldia gozaten hasteko eskaerak ez du salbuesten erretiro-eskaera garaiz eta behar bezala aurkezteko betebeharririk.

relevo antes de jubilarse, los trabajadores y trabajadoras que reúnan las condiciones para el disfrute del contrato de relevo deberán solicitar el contrato de relevo, pudiendo disfrutar la reducción acumulada hasta ese momento de forma plurianual en el plazo anterior a la jubilación total. Cuando se reanude la formalización de contratos relevo en la Administración, el personal que cumpla o vaya a cumplir los requisitos para acceder al contrato relevo ya no podrá acogerse a esta modalidad.

En todo caso, el personal que solicite esta modalidad plurianual acumulada deberá haber prestado 5 años continuados o 10 interrumpidos en el momento de la jubilación en los centros públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

En el cálculo de los servicios prestados se tendrán en cuenta los períodos de cuidado de familiar y suspensión transitoria, siempre que se justifiquen.

h) La situación administrativa del personal con reducción horaria acumulada será de servicio activo y no generará vacaciones. Por ello, se deberán comunicar todas las circunstancias que afecten a las condiciones de disfrute de esta reducción.

2.3 Regulación del procedimiento

a) Para iniciar el disfrute del periodo acumulado plurianual, el personal laboral educativo deberá presentar simultáneamente la solicitud de disfrute del mismo junto con una declaración jurada o simulación de la Seguridad Social en la que conste la fecha de jubilación definitiva. Esta solicitud de inicio del disfrute del periodo reducido deberá presentarse con una antelación mínima de 2 meses del inicio del periodo acumulado.

La solicitud de inicio del disfrute del periodo acumulado no exime de la obligación de presentar la solicitud de jubilación en tiempo y forma.

Erretiro hori hartzeko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra zehazten dituen kotizazio-aldiak bete beharko dira.

b) Urte anitzeko aldi metatua amaituta, langileak ez badu erretiroa hartzen justifikatutako arrazoiengatik, % 100ean lan egingo du berriro, eta adinagatiko beste murrizketa bat eskatzeko aukera galduko du.

c) Emandako murrizketari ezin zaio uko egin ikasturtean zehar.

d) Urte anitzeko modalitate metatua aukeratu ondoren, langilea beste modalitate batera aldatzen bada, metatutako aldia galduko du.

HIRUGARRENA. - Araudi orokorra:

a) Murrizketa hartu ahal izateko bi modalitateak bateraezinak dira lanaldi-murrizketekin. Izan ere, neurri horren helburua da langileen adina dela-eta lan-karga murriztea, eta jardunaldiaren murrizketarekin helburua bete dela jotzen baita.

b) Txanda-kontratua eskatzea nahitaezkoa izango da eskatu ahal duenarentzat. Horretarako aukera duenak eta eskatzen ez badu ezin izango du adinagatiko murrizketarik hartu.

c) Adinagatiko murrizketa mota aldatzeko aukera egongo da. Hala ere, aukeratutako murrizketa mota ikasturte osoan mantendu beharko da. Urtero, ekainaren 30a baino lehen hurrengo ikasturtean murrizketa mota aldatu nahi dela adierazi beharko da eta dagokion eskaera aurkeztu beharko da EIZU bidez.

LAUGARRENA. - Eskabideak eta epea.

Eskabidea dagokion inprimakia betez egingo da, eta EIZU langilearen atarian egongo da eskuragarri.

Eskabidea egiteko epea urte osoan egongo da irekita eta baldintzak bete aurreko hilabetean aurkeztu ahal izango da. Behin eguneroko murrizketa onartuta duenak eta urte anitzekora aldatu nahi duenak, ikasturtero irekiko den epean aurkeztu beharko du

A tal efecto, el acceso a dicha jubilación estará condicionado al cumplimiento de los períodos de cotización que determine el Régimen General de la Seguridad Social.

b) Si finalizado el periodo acumulado plurianual la persona trabajadora no se jubilara por causas justificadas, volverá a trabajar al 100%, perdiendo la posibilidad de solicitar otra reducción por edad.

c) La reducción concedida es irrenunciable durante el curso escolar.

d) Si una vez elegida la modalidad acumulada plurianual, se cambia a otra modalidad, se perderá el periodo generado.

TERCERO. - Normativa general:

a) Todas las modalidades de disfrute son incompatibles con las reducciones de jornada. El objetivo de esta medida es reducir la carga de trabajo debido a la edad del personal laboral y se considera que con la reducción de la jornada se ha cumplido el objetivo.

b) La solicitud del contrato de relevo será obligatoria para quien pueda solicitarlo. Quien pudiendo hacerlo no lo solicite, no podrá disfrutar de la reducción por razón de edad.

c) Se podrá modificar el tipo de reducción por edad. No obstante, el tipo de reducción elegido deberá mantenerse durante todo el curso escolar. Anualmente, antes del 30 de junio de cada año, deberá indicarse que se desea cambiar el tipo de reducción en el curso siguiente y presentar la correspondiente solicitud a través de EIZU.

CUARTO. - Solicitudes y plazo

La solicitud se realizará cumplimentando el formulario correspondiente y estará disponible en el portal del empleado (EIZU).

El plazo de solicitud estará abierto todo el año y dicha solicitud podrá presentarse durante el mes anterior al cumplimiento de los requisitos. Una vez aprobada la reducción diaria, quien quiera cambiar a plurianual,

horretarako eskaera. Hezitzaileak modalitatea aldatzeko eskaerarik aurkezten ez badu, hurrengo ikasturtean ere onartuta duen eguneroko murrizketarekin jarraituko du.

Irailaren 1a baino lehen eguneko murrizketa eskaera aurkeztu eta onartzen zaionari 2026ko irailaren 1etik aurrera murriztuko zaio jardunaldia, baldin eta egun horretan baldintzak betetzen baldin baditu. Eskaera irailaren 1etik aurrera aurkeztu eta onartzen zaienei, eskaera onartzen zaien egunetik aurrera murriztuko zaie jardunaldia, baldin eta egun horretan baldintzak betetzen badituzte. Betiere, murrizketa ordezkatuta baldin badago, bestela, ordezkapena hasten denetik hasiko litzateke murrizketa.

Irailaren 1a baino lehen urte anitzetan metatu beharreko murrizketa eskaera aurkeztu eta onartzen zaionari 2026ko irailaren 1etik aurrera hasiko zaio murrizketa metatzen, baldin eta egun horretan baldintzak betetzen baldin baditu. Eskaera irailaren 1etik aurrera aurkeztu eta onartzen zaien langileak, eskaera aurkezten duten egunetik hasiko dira murrizketa epea metatzen, baldin eta egun horretan baldintzak betetzen badituzte.

BOSGARRENA. - DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta "Langileen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

a) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

b) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo

deberá presentar su solicitud en el plazo que se abrirá cada curso escolar. En el caso de que la persona trabajadora no presente solicitud de cambio de modalidad, continuará con la reducción diaria que tenga reconocida para el curso siguiente.

A quien presente y le sea concedida la solicitud de reducción de jornada antes del 1 de septiembre, se le reducirá la jornada a partir del 1 de septiembre de 2026, siempre y cuando cumpla los requisitos en dicha fecha. A las personas que hayan presentado solicitud a partir del 1 de septiembre y se les haya sido concedida, se les reducirá la jornada a partir del día en que se les haya aceptado la solicitud, siempre que cumplan los requisitos en dicha fecha. Y siempre que la reducción esté sustituida, en caso contrario, la reducción se empezaría a contar desde el inicio de la sustitución.

A quien presente y acepte la solicitud de reducción acumulada plurianual antes del 1 de septiembre, se le acumulará la reducción a partir del 1 de septiembre de 2026, siempre que cumpla los requisitos a dicha fecha. El personal que presente solicitud y sea aceptada a partir del 1 de septiembre, comenzará a acumular el plazo de reducción desde la fecha de presentación de la solicitud, siempre que cumpla los requisitos a dicha fecha.

QUINTO. - INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente. Legitimación:

a) Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.

b) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.

tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

c) 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.

d) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

e) 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

- a) Estatuko Administrazioari beste organo batzuk.
- b) Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu

Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-es.shtml>

Araudia:

a) Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

SEIGARRENA. - Errekurtsoak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

c) Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

e) Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores

Destinatarios:

- a) Otros órganos de la Administración del Estado.
- b) Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml>

Normativa:

a) Reglamento General de Protección de Datos: (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

b) Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

SEXTO. - Recursos.

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente



Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera

resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria Gasteizen, sinaduraren data-orduan
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL